BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3916

178/2011 DEKRETUA, uztailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzako lanpostu-zerrendak onartzeko dena.

Lanpostu zerrendak Justizia Administrazioaren barruko egiturak antolatzeko tresna bat dira. Hori dela eta, onartu behar dira Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan ezarritakoa betetzeko helburuz.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521. artikuluan ezartzen den bezala, onartzen diren lanpostu zerrenden bidez langileak antolatuko dira baita bulego judizialen egitura osatzen duten atal desberdinetan sartu ere. Lanpostu zerrenda horiek beti argitaratuko dira.

Aipaturiko Lege Organikoaren 522. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eskumenak bere gain hartuta dituzten autonomia erkidegoek egingo dute bere jardute-eremuko bulego judizialen lanpostuak antolatuko dituzten lanpostu zerrenden lehenengo onarpena. Horretarako, lehenago, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak txostena emango du eta ordezkaritza handiena duten sindikatuekin negoziatuko da.

Aipaturiko Legearen 523. artikuluaren bigarren paragrafoak adierazten duen bezala, hasierako lanpostu zerrendei buruz gertatzen diren aldaketek kontuan hartu beharko dituzte langileak berriro banatu eta antolatzeko lege honek biltzen dituen irizpideak.

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 12. artikuluaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzari buruzko ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuari jarraituz, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko bulego judizialetako lanpostu-zerrenda prestatu du

Hori dela eta, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 472/2009 Dekretuaren 4. artikuluak ezartzen duen bezala, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren proposamenez, eta 2011ko uztailaren 26an izandako bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Onarpena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzako lanpostu-zerrendei. Dekretu honen eranskinean jasotzen dira zerrenda horiek.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

SAILA: **JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOA**
KUDEAKETA ATALA: **BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALAREN ZUZENDARITZA**
DESTINO ZENTROA: **GOBERNU IDAZKARITZA**

Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Herria	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berariazko ezagutza	H.E.	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berariazko osagarria	Oharrak
9003	1	**JAN-EKO PRESIDENTEARI LAGUNTZA**	B	BILBAO	I.A.	B	C Kudeak. Prozesu eta Admi. Izap.	Diplomatura				3	3667,20	6863,69	
480005	1	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. KUDEATZAILEA**	G	BILBAO	L.O.	B	Prozesu eta Admi. Kudeak.	Diplomatura					3667,20	6863,69	
480005	2	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. KUDEATZAILEA**	G	BILBAO	L.O.	B	Prozesu eta Admi. Kudeak.	Diplomatura					3667,20	6863,69	
480005	3	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. KUDEATZAILEA**	G	BILBAO	L.O.	B	Prozesu eta Admi. Kudeak.	Diplomatura					3667,20	6863,69	
480005	4	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. KUDEATZAILEA**	G	GASTEIZ	L.O.	B	Prozesu eta Admi. Kudeak.	Diplomatura					3509,40	6863,69	
480005	5	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. KUDEATZAILEA**	G	DONOSTIA	L.O.	B	Prozesu eta Admi. Kudeak.	Diplomatura		3	Urtarr-15		3509,40	6863,69	
480005	6	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. KUDEATZAILEA**	G	BILBAO	L.O.	B	Prozesu eta Admi. Kudeak.	Diplomatura		3	Urtarr-20		3667,20	6863,69	
480005	7	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. KUDEATZAILEA**	G	BILBAO	L.O.	B	Prozesu eta Admi. Kudeak.	Diplomatura		3	Urtarr-20		3667,20	6863,69	
580006	1	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. IZAPIDEGILEA**	G	BILBAO	L.O.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea					3141,48	5551,58	
580006	2	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. IZAPIDEGILEA**	G	BILBAO	L.O.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea					3141,48	5551,58	

Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Herria	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berariazko ezagutza	H.E.	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berariazko osagarria	Oharrak
580006	3	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. IZAPIDEGILEA**	G	BILBAO	L.O.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea					3141,48	5551,58	
580006	4	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. IZAPIDEGILEA**	G	DONOSTIA	L.O.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea					2983,56	5551,58	
580006	5	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. IZAPIDEGILEA**	G	BILBAO	L.O.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea		2	Urtarr-15		3141,48	5551,58	
580006	6	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. IZAPIDEGILEA**	G	BILBAO	L.O.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea		2	Urtarr-15		3141,48	5551,58	
580006	7	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. IZAPIDEGILEA**	G	VITORIA-GASTEIZ	L.O.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea		2	Urtarr-20		2983,56	5551,58	
580007	1	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. IZAPIDEGILEA**	B	BILBAO	B.L.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea		2	Urtarr-10		3141,48	5551,58	
580007	2	**GOBERNU IDAZKARITZA - PROZESU ETA ADMI. IZAPIDEGILEA**	B	BILBAO	B.L.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea		2	Urtarr-10		3141,48	5551,58	
9002	1	**GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARIA**	B	BILBAO	I.A.	C	Prozesu eta Admi. Izap.	Batxilerra edo baliokidea					3141,48	5551,58	
680003	1	**GOBERNU IDAZKARITZA - LAGUNTZA JUDIZIALA**	G	BILBAO	L.O.	D	Laguntza Judiziala	DBHko graduatua edo baliokidea					2399,76	5181,54	
680003	2	**GOBERNU IDAZKARITZA - LAGUNTZA JUDIZIALA**	G	BILBAO	L.O.	D	Laguntza Judiziala	DBHko graduatua edo baliokidea		2	Urtarr-15		2399,76	5181,54	
680003	3	**GOBERNU IDAZKARITZA - LAGUNTZA JUDIZIALA**	G	BILBAO	L.O.	D	Laguntza Judiziala	DBHko graduatua edo baliokidea		2	Urtarr-20		2399,76	5181,54	